



Martxoan atxilotutako gazteen gurasoek azalpenak emango dituzte asteazkenean

MARTXOAREN 31n atxilotutako gazte hernaniarren gurasoek azalpenak emango dituzte asteazkenean, hilak 30. Prentsaurrekoa Biteri kultur etxean izango da, eta bertan bere seme alaben inguruko informazioa emango dute, eta bizi duten egoera azalduko dute. ■

Albokarien topaketa gaur herriko kaleetan barrena

ALBOKARIEN Topaketa izango da gaur Hernanin, aurtengoarekin 16garren aldiz. Topaketa atzo hasi bazen ere, egun haundia gaurkoa izango da. Aurreneko ekitaldia goizeko 10:30etan izango da, eta bertan Eugenio Etxeberria albokaria liburua aurkeztuko dute. Ondoren izango dira kalejirak, topaketa, herri bazkaria eta erakusketa /2

❖ SENDIA

Adineko ezinduek zaintzen ikasteko ikastaroa hasi da

Aurten ere adineko ezinduek zaintzen ikasteko ikastaroa antolatu dute. Guztira bi talde izango dira eta klaseak hasi berri dira. Hala ere, norbaitek ikastaroan parte hartu nahiko balu izena emateko aukera zabalik du. /2

◆ FUTBOLA

Hernanik 2-1 galdu zuen Hondarribian

Hernanik ezin izan zuen denboraldiko aurreneko garaipena lortu atzo Hondarribian. Partidua nahiko berdindua izan bazen ere, etxekoek lortu zuten garaipena, 2-1. /2

❖ IGANDE MUSIKATUAK

Rikar Rikikuzu gaur musika jartzen

Igande musikatuen hirugarren saioa izango da gaur, eta Rikar Rikikuzu izango da musika jartzen; Tilosetan 18:00etatik 20:00etara. ■



Bizikletek automobilak ordezkatuko dituzte gaur

BIZIKLETA festa izango da gaur herrian, Mugikortasun Astearen barruan. Urteroko moduan, herritar askok bizikleta hartu eta automobilik gabe, herriko kaleetan ibiltzeko aukera paregabea izango dute. Urbietan abiatuta, herrian barrena ibili ondoren, Kaxkoan bukatuko dute ibilbidea. Atzokoan patinetan ibili ziren eta ginkanaren bidez ezinduen lekuan jartzeko aukera izan zuten hernaniarrek. /6

GAUR KRONIKAN

Txantxillako obrak
aurrera doaz /2

Laburrak /2

AAMren prentsa oharra /3

Kirolak /3

Jabetze Eskolen
hasierako ikuskizuna /7

Txantxangorriko
Sagardo Lehiaketa /7

Astigarraga laburrak /8

AUKERATU BIDERIK LABURRENA eta IRABAZI SARIA!

2 lagunentzako otordua ERRIOGUARDA jatetxean

8. Urteko zein garaitan dantzatzen da azeri dantza?
9. Zein ezberdintasun dago Oialume eta Martindegiren artean?
10. Kultur etxean dantza garaikidea eskaintzen al da?

Irabazlearen izena urriaren 4an jakinaraziko dugu.



ikasi euskara
eman izena æek-n
Azerketa ofizialak eta titulu homologatuak www.aek.org

AEK: Larramendi 11 behea
943557801
hernani@aek.org

Erantzunak sartzeko buzoiak: OINDDI, GARIN, KITTO, GUNEA, RIOJA, DEPOR, AITAN-ETXE eta ARALAR Galderen erantzunak internet bidez edo euskaltegian bertan utzi daitezke.

Kalejirak, erakusketa eta bazkaria gaur Euskal Herriko albokariaren topaketan

Gaurkoan izango dira ekitaldi nagusiak eta eguna 10:30etan hasiko dute, 'Eugenio Etxeberria albokaria' liburuaurren aurkezpenarekin.

ALBOKA hotsak herrian barrena zabalduko dituzte gaur, Euskal Herriko albokariaren topaketa izango baita Hernanin. Aurten goa topaketaren 16garren edizioa izango da, eta ekitaldiak atzo hasi baziren ere, egun haundia gaurkoa izango da.

Liburu aurkezpena, kalejira, bazkaria, erakusketa....

Hernaniko albokariaren topaketa hitzordu garrantzitsua izaten da Euskal Herriko hainbat eskualdeetako albokariarentzat, guztiak biltzeko aitzakia paregabea izaten baita.

Gaurko eguna goizeko 10:30etan hasiko dute, *Eugenio Etxeberria albokaria* izeneko liburuaurren aurkezpenarekin, Musika eskolan. Ondoren, 12:00etan, alboka doinuak zabalduko dituzte herriko kaleetan barrena. Hala ere, albokari guztien emanaldi nagusia ordu erdi beranduago izango da, 12:30etan; Albokaldia izango da Ezkiaga pasealekuan (euria egingo balu Atsegindegin).

Ordu berean baita ere, albokagileen azoka eta erakusketa izango da. Bertan ikusi ahal

izango dira albokak egiteko duten trebezia eta azken berrikuntzak.

Arratsalderako indarrak berreskuratzeko, 14:30etan bazkaria izango dute. Albokariaren arteko herri bazkaria izango da, eta Santa Barbara elkartearen egingo dute. Jaian parte hartu ez duen norbaitek bazkarira joan nahiko balu, 20 euro ordaindu behar ditu.

Azkenik, eta eguna bukatzeko, Albokariaren agurreko kalejira egingo dute, Kaxkoko kale eta Plazetan barrena. ||



Atzo Nafarroako albokariaren kontzertua izan zen Biterin.

Txantxillako obrak aurrera doaz eta laister hasiko dira Hernaniko sarrera berria eta errotonda egiten

Azken hilabeteetan obrak nabarmen egin du aurrera; orain 3 pisu dituen soto haundi bat hasi dira eraikitzen, eta horma honi begiratuta etxebizitzak non egingo diren antzeman daiteke.

TXANTXILLAKO obrak aurrera doaz eta atzean geratu dira dagoeneko garai bateko futbol zelaia, eta pixkanaka desagertzen ari den aparkalekua. Azken hau pixkanaka txikituz joan da eta hemendik gutxira desagertuko da.

Txantxilla urbanizatzeko lanak ez dira makalak, eta hortaz fase ezberdinetan daude banatuta. Aurreneko pausua izan zen goi-tentsioko aire linea lurperatzea; Inmakulada ikastetxearen barruan zegoen poste elektrikoa desagerrarazi dute, eta hilerria arte doan elektrizitate

linea errepide ertzetik lurperatu dute.

Horrez gain, lur mugimenduak eta horniketa zerbitzuen preparatiboak ere amaitzera daude. Lur azpian eraikitzen ere hasiak dira, 3 pisu dituen soto haundi bat eraiki baitute, 10 metroko altuera duten horma prefabrikatu batzuekin. Gerora altxako diren etxebizitzak horma honen inguruan eraikiko dira. Txantxillan, guztira 190 etxebizitza egingo dituzte, horietatik 68 Babes Ofizialekoak izango direnak. Etxebizitzak lau eraikinetan banatuko dira, eta 13 atari

izango dituzte.

Hurrengo fasea: sarrera berria eta errotonda

Hurrengo lan fasean Hernaniko sarrera berria eta errotonda egingo dituzte. Sarrera berria Inmakulada Ikastetxearen alboan altxa duten hormaren ondotik pasako da.

Etxeak erosteko aukera

UTE Txantxillak, obra egiten ari diren enpresek, Kronikari adierazitakoaren arabera, oraindik ere badago etxebizitzak erosteko aukera. Informazio gehiagorako 943 42 95 21 telefonora deitu. ||



Txantxillak gaur egun duen itxura.



❖ GERTAERAK

Azken pintaden inguruko txostena egiteko argazkiak egin zituen atzo Ertzantzak Hernanin

Herriko kale eta paretetan pintada berriak agertu dira

azken egunetan, eta horren inguruko txostena egiteko argazkiak egin zituen atzo Ertzantzak Tiloseta inguruan. Joan den uztailan, Eusko Jaurlaritzak milioi erdi euro destinatatu zituen, «terrorismoaren biktimak mindu eta terrorismoa gorapatzen» zuten kaleko pintadak garbitu eta pankartak kentzeko. Ertzantzak egingo duen txostena erabaki horren harira dator. ||

❖ XALAPARTA ELKARTEA

Aranora joango dira gaur

Xalaparta elkarteak Aranora joango dira gaur. Autobusa goizeko 08:30etan aterako da elkartetik eta Besabira eramango ditu. Aranora bazkaltzera joango direnentzako autobusa 12:15eta aterako da, elkartetik baita ere. Arratsaldeko 17:00etan toka txapelketa jokatu dute bertan eta 18:30ak aldera bueltatuko dira Hernanira aldera. ||

❖ ELIZA

Joxe mari Landa apaizari azken agurra egingo diote gaur

Azken agurra egingo diote gaur Joxe Mari Landa apaizari, bai Ereñotzuko San Antonio elizan, goizeko 10:30etan, eta baita Floridako San Jose Langilearen parrokiaren ere, goizeko 12:00etan. Landa 10 urtez aritu da Ereñotzuko elizan eta 14 urtez Floridakoan. ||

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Urriaren 12an auzo bazkaria

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Osinaga auzo elkarteak bazkaria antolatu dute urriaren 12rako. Izena eman nahi dutenek hilaren 8ra arte izango dute aukera 652 758 952 (Arantxa) telefonoan edo Karmelerengana azalduta. ||

Hernaniko AAMek salatu du preso eta iheslarien egoera geroz eta larriagoa dela

Kronikara bidalitako prentsa oharraren bidez, besteak beste, dei egiten die herritarrei «eskubideen urraketari aurre egin eta aldarrikapenak kalean mantentzera».

HERNANIKO Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gogor salatu du euskal preso eta iheslariak gaur egun bizi duten egoera, Kronikara bidalitako prentsa oharraren bidez. Oharreak diotenez, eskubideak aspalditik urratuak izateaz gain, kartzeletan bizi duten egoerak ere txarrera egin du: «Azken aldian presoan eta iheslarien egoera geroz eta larriagoa da: Jipoiak, miha- ketak, bisita murrizketak etab.

Horrez gain, gerra zikinaren itzala ere hor dugu Jon Anzaren desagerpenarekin, eta hainbat militanteren bahiketarekin».

Prentsa oharreak adierazita- koaren arabera diote guztien esku dagoela egoerari aurre egitea eta aldarrikapenak kalean mantentzea: «orain gainera, preso eta iheslariak elkartasuna eta eskubideen defentsa galerazi dute, kale- tati izkutarazi eta isilarazi nahi gaituzte. Guztion esku dago

errepresio gordin eta eskubideen urraketa etengabe honi aurre egitea, eta era berean, aldarrikapen hau kalean mantentzea».

Oharreak amaieran dei egiten die herritarrei banderolak balkoietan jartzeko: «AAMtik dei egiten diegu herritar guztiei *Euskal presoak eta iheslariak Euskal Herrira* banderola balkoietan jartzera, elkartasuna guztion lana baita» II

Adineko ezinduek zaintzen dituzten pertsonentzako ikastaroa martxan da

Ikastaroa antolatzen da Ongintza Patronatuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, eta Sendia Programaren barruan dago.

AURTEN ere martxan da bere kabuz moldatzen ez diren 65 urtetik gorako pertsonak zaintzen dituzten senitarteko eta pertsonentzako ikastaroa. Ikastaroa Sendia programaren barruan dago, eta Ongintza Patronatuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da.

Bi talde daude

Bi talde osatu dira aurten ikas- taroak egiteko. Aurreneko talde-

ak asteazkenean hasi zuen ikasturtea, eta bigarrenak bihar hasiko du; bi ikastaroak arratsaldeko 15:00etan izango dira.

Parte hartzeko aukera

Ikastaroak hasi berritan badira ere, senitartekoren batek parte hartu nahiko balu oraindik badagoela aukera adierazi dute. Horretarako Gizarte Zerbitzuetara jo behar du, edo 943 557 854 telefonora deitu. II

◆ FUTBOLA

Hernaniri ihes egin zion aurreneko garaipenak, 2-1 galduta Hondarribian

DENBORALDIKO aurreneko garaipena lortzea kostatzen ari zaio Hernaniri. Atzo hirugarren partidua jokatu zuten, Hondarribian, eta 2-1 galduta zuten.

Partiduko aurreneko gola lehenengo zatian hasieran sartu zuten etxekoek, Herna-

niko atezainaren hutsaren ostean. Hala ere, txuri berdeek partiduari aurre egin eta bi aukera garbi izan zituzten, nahiz eta azkenean ez zuten gauzatzen jakin. Partiduko bigarren zatian aukera berdintsuak izan zituzten bi

taldeek, baina hondarribiarrek berehala 2-0koa sartu zuten, faltaz. Hernaniarren gola Gal- donak sartu zuten, partidua bu- katzeko 20 minutu falta zirenean. Partidua bukatu aurretik ere aukerak izan zituzten arren, 2-1 bukatu zen. II

◆ ERREMONTA

Etxabek garaipenarekin esan zion atzo agur erremonteari

Jokin Etxabe erremontista azkoitiarrak atzo jokatu zuen erremonteko azken partidua, profesional mailan. Hernanin bizi den pelotariak Zeberio Ila izan zuen bikote agurreko partiduan, eta Uterga eta Lizasoren kontra 40-39ko garaipena lortu zuten. Partidu amaieran azkoitiarrak adierazi zuen gustura zegoela egindako jokoarekin eta bukaeran emozionatu egin zela: «partidu bukaeran emozionatu egin nahiz, txalo zaparrada handia jaso dut, publikoaren berotasuna sentitu dut» II



◆ WATERPOLDA-IGERIKETA

Piszinara gerturatu ziren herritarrek waterpolo eta igeriketako taldeak ezagutu zituzten

Atzo kiroldegiko piszinara hurbildu ziren hernaniarrek aukera polita izan zuten waterpolo eta igeriketako taldeak ezagutu, eta hauen entrenatzeko moduak ezagutu eta tresnekin aritzeko. II

TALDE ETA IKASLEENTZAKO BIDAIAK PRESTATZEN DITUGU

Martxoan 7 gau : Hegaldia, trasladoak eta tasak

TUNEZ: Marina palace hotela, pentsio erdia **306€**

TENERIFE: Marquesa-Condasa hotela, pentsio osoa **375€**

CUBA (LA HABANA): Neptuno & triton hotela, gosariak (bisadoa) **783€**

Zatuz eta kontsultatu disponibilitateak

HERNANI BIDAIAK
Urbieta, 6
943 33 00 49
hernanib@teletel.es
www.hernanibidaiak.com

Aukera gehiago:
<http://hernanibidaiak.bookingfax.com>
-bideoak, katalogoak eta informazio zabalak-

ARRI TABERNA

GIRO EDERRA

ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

ARRI taberna

Pizzak eta Pasta freskoak

NEGUKO ORDUTEGIArekin hasi gera:

- ✓ Asteburu eguerditan zabalik
- ✓ Egunero arratsaldean zabalik
- ✓ Astelehenetan itxita

Etxera eramateko prestatzen ditugu

Bidebieta plaza 2 (Antziola berrin)
Tel.: 943 33 34 37

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK
(GURE INGELESETXEA)

ZORIONAK

NAROA I. ("B"), SOLEDAD L. eta IÑAKI I.
Cambridge First Certificate gainditu duzuelako.

2009-10EKO IKASTAROA: MATRIKULA IREKITA
ORDUTEGIA: 12:00-13:30 ETA 18:30-20:00

IRAKASLE NATIBOAK
CAMBRIDGE UNIVERSITY ESOL
'FIRST', 'ADVANCED' ETA 'PROFICIENCY'
AZTERKETEN PRESTAKUNTZA.

HIZKUNTZESKOLA OFIZIALEKO
AZTERKETEN PRESTAKUNTZA.

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
Kale Nagusia 41 - 1

Txapel bakarrerako, 44 buru

Urriaren 3an hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, Zestoan.

Bertsoaren 4 urtez behingo zitan Hernaniko bertso eskolako 6 kide izango dira lehian, denak ibilbide eta helburu ezberdinak dituztenak.



Aitor Mendiluze, Iñaki Zelaia, Unai Agirre, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi.

Arnaitz Lasarte Santa Kruz

DATORREN larunbatean, urriak 3, hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, Zestoan. Orduan jarriko da martxan *errusiar mendia*, eta BECeko abenduaren 13ko final haundirarte egingo du bidea. *Errusiar mendia*, hori da 2009ko txapelketako logoaren irudia. Bertsoak emozio asko sortzen ditu: poza, tristura, etsipena, harridura,...eta hori irudikatu nahi izan du bertsozale elkarteak.

Andoni Egaña, azken lau ekitaldietako txapeladuna izango dute zain finalean, txapelketan parte hartuko duten beste 43 bertsolariek. Horietatik 6 Hernaniko bertso eskolako kideak dira. Iñaki Zelaia, Jexux Mari Irazu, Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirrek final-laurdenetatik ekin beharko diote txapelketari. Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbiok, berriz, finalurrekoetatik, duela lau urteko finalean abestu baitzuten. Hauen bertsoak epaituko dituen taldean, Bakarne Urreaga hernaniarra dago; lehen aldiz arituko da epaile lanetan Txapelketa Nagusian.

Bertsolari Txapelketa Nagusirako saioetako sarrerak eta finalerarte izango diren 13 saioetarako bonoa, aurrez erostekotan, internet bidez bakarrik erosi daitezke: www.bertsosarrerak.eu atarian. Finalerako sarrerak eta finalerako autobus zein bazkari txartelak, berriz, internetez gain, saio guztietako atarietan, Bertsozale Elkartearen informazio mahaian, erosi ahal izango dira. Eta Euskal Herriko hainbat herritan ere salmenta puntuak egokitu dira. Hernanin, Tripontzi tabernan izango dira eskuragai. ■

Bertso eskolako 6 kide, helburu banarekin

Iñaki Zelaia
(36 urte, Hernani)

Urriaren 11n, Bilbon kantatuko du.

Bilbon saio konpleto bat egitea da txapelketarako nere helburu nagusia, azken txapelketetan irregular xamar ibili naiz eta. Eta saio ona eginda semifinaletara pasaz gero, sari handia litzake neretzako.

Prestaketa betiko modukoa izan da. Baina aurten bestetan baino denbora gutxiago eskaini diot. Astean behin Aranon biltzen gera Unai Agirre, Mendiluze, Agin Rezola, Arano, Aritz....) eta beste behin edo bitan Hernanin (Irazu, Beñat, Unai,...). Etxean ere zeozer egiten saiatu gera, errimak erreparatu, bertsoak entzun,...»

Unai Agirre
(33 urte, Hernani)

Urriaren 18an, Zarautzen kantatuko du.

Helburua? Topiko batekin erantzungo dizut: gure mailan ahalik eta saiorik onena egitea. Txapelketan postuari begira bakarrik jokatzuz gero, txapeladuna bakarra da, baina gainontzean denok daukagu zerbait irabazteko.

Gure kasuan ostegunero huts egin ezin dugun zita izaten dugu Aranon, Hernaniko bertso eskolako zenbait lagunek, eta txapelketa garaian prestaketa saio intentsuogak egiten ditugu bertan. Baina txapelketarako horrek adina garrantzia du bakarka egiten den lanak eta horretan denok egiten dugu zerbait.

Maialen Lujanbio
(33 urte, Hernani)

Azaroaren 7an, Bergaran kantatuko du.

Helburua? Aurreko zapore mikatza gozatzea lehenengo. 2005eko Txapelketako emaitza ez zen txarra izan baina sentipenak bai, ez nuen bertsoan disfrutatu. Eta zapore hori gozatzeko, aurten bertsoan ahalik ondoen egin eta egin nahi dudanetik ahalik hurbilen ibili nahi nuke.

Etzeko lanean batetik. Prestaketa kontzeptuala nolabait: zer egin nahi duzun, ze eratan, zein doinukeratan, estetikoki eta edukiz. Eta tekniko ere bai: errimak, loturak etabarrak. Bertso eskolan lagunekin kantatu, norbere burua jendaurrean entzun eta sentitu, bestenak entzun, komentatu...

Beñat Gaztelumendi
(22urte, Añorga)

Urriaren 17an, Uztaritzen kantatuko du.

Ni gustura ari naiz entrenamenduetan, eta gustatuko litzaidake horrelako maila ematea txapelketan. Niretzat lehendabiziko Euskal Herrikoa da eta oholta gainean eroso sentitu nahi dut. Ea publikoan emozioak sortzeko gai naizen.

Hasieran Orion biltzen nintzen Xabier Sukiarekin. Orain Hernanin astean pare bat aldiz, Irazu, Zelaia eta Unai Agirrerekin. Entrenamenduetan txapelketako ariketak egiten ditugu pare bat aldiz, baina arreta gehien bakarkakoari jartzen diogu.

Aitor Mendiluze
(34 urte, Andoain)

Azaroaren 7an, Bergaran kantatuko du.

Nik helburua betiko bera daukat, bertsoan egin eta oholtzan gozatzea. Egia esan finala eta horrelako gauzak urrun samar ikusten ditut, ez nau batere kezkatzen sailkapenak. Nere helburua bertsoa bera dela esango nuke.

Astean behin biltzen gera Unai eta Eñaut Agirre, Xabier Legarreta, Iñaki Zelaia, Agin Rezola, Aritz Zerain eta konpainia bertso batzuk bota eta ederki afaltzeko, eta horretaz aparte ezer ez. Etxean ez dut denborarik eta pazientziarik hartzen, eta badakit ez dudala hartuko. Bertsoan aritzeak baino gehiago giroak laguntzen dit.

Jexux Mari Irazu
(37 urte, Larraul)

Urriaren 11n, Bilbon kantatuko du.

Nere helburua, txapelketan ere, bertsoan dakidan ondoena egitea da, eta karrera luze honetan ahalik eta etapa gehienetan kantatzea.

Prestakuntza betiko beretsua ari da izaten. Etxean batez ere alde tekniko lantzen da, errimak... eta bertso-eskolan gaiak, ikuspegiak, bideak eta abar lantzen ditugu. Astean bitan biltzen gera, Hernaniko bertso eskolaren lokalean.

Aritz Zerain

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Koordinatzailea

«Elkartearen helburu nagusia bertsolaritza zaindu, sustatu eta etorkizuna bermatzea da, ez inongo errekorrik jartzea»

ARITZ Zerain ereñotzuarra, lanpetuta baina ilusioz ikusi dugu Txapelketa Nagusiaren atarian, 2008ko urtarrilaz geroztik Euskal Herriko Bertsozale Elkartean ari baita koordinatzaile lanetan. Txapelketa antolatzeak ahalegin handia eskatzen omen du, baina gogoz dago 3 hilabeteko sprinterako.

Bertsozale elkartearen egitura nahiko konplexua da. Zein da zuk bertan egiten duzun lana?

Euskal Herriko Bertsozale Elkartean aritzen naiz ni, baina proiektu bateratuan beste 5 Elkarterekin ari gera elkarlanean, Arabako BE, Bizkaiko BE, Gipuzkoako BE, Iparraldeko Bertsozaleen Lagunak Elkarte eta Nafarroako BE. Elkarte autonomoak bagera ere, denak batera egiten dugu lan, denen artean adostutako ildo nagusiekin. Aldi berean, Elkarte bakoitza 4 Sail ezberdinetan dago antolatua, bakoitza funtzio eta eginkizun konkretuarekin: Transmisioa, Sustapena, Komunikazioa eta Ikerkuntza. Guzti honek antolaketan haundia suposatzen du, langile aldetik, administrazio aldetik, ekonomikoki, harremanak (barne eta kanpo harremanak) eta abar. Proiektuaren bisio orokor batetik guztia koordinatzen saiatzea da nire lana.

Zuk txapelketa 3 modutara bizi izan dezuz: 2001ean bertsolari bezala, 2005an entzule eta orain antolatzaile. Hori ez da kalterako

izango?

Ez ezta? Frenete guztiak ezagutzeak bentaja pixka bat igual emango dit. Dударik ez oso perspektiba diferenteetatik bizitzen dela txapelketa. Aurreko bietan asko disfrutatu nuen, 2001ean kantatu nuen espektatiba gehiegi gabe kantatu nuelako eta ahal nuen guztia disfrutatu nuelako (entrenatzen, bertso eskolako giroan,...) Eta 2005ean ere asko gozatu nuen, "Bertso gaxook" entzule bezala beti disfrutatzen dugulako (bertsoekin, Bertso eskolakoen arteko "afari saio-analistekin",...).

Gutxiago disfrutatzea tokatuko zaizu aurten?

Bai, seguruenik. Txapelketa bezalako mugimendu batek izugarriko detaile pila zaindu beharra eskatzen duelako eta horrek tentsioa dakarrelako. Atera kontuak, txapelketa urriaren 3an hasiko bada ere, antolakuntza taldeak urte bat baino gehiago darama lanean eta orain hiru hilabeteko azken sprinta dator. Hala ere ilusio haundiarekin ari gera lanean, bai Elkarteko langileak eta baita borondatez laguntzera datozenak ere.

Txapelketa honi zer funtzio eman nahi dio elkarteak?

Txapelketa guztiak orokorrean badituzte berezkoak dituzten funtzioak. Herrialdeetako bertsogintza erakustea da bat eta horretarako aurtengoan partaidetza ere haunditu egin

da. Herrialdeetako bertsogintza gora doa eta horri erantzuteko 2005ean baino 6 bertsolari gehiagorentzat egin dugu lekua.

Bestalde, erdal komunitateari bertsolaritza ezagutarazteko helburua etengabe landu beharrekoa da eta aurtengoan ere oso presente izango dugu. 2005ean eman zituen bere fruituak eta zonalde hain euskaldunak ez diren lekuetan gora egin dute nabarmen alde batek bertso saioek eta bestetik Hezkuntza Arautuan bertsolaritza lantzeko dugun proiektuaren eskariak. Bertsozaleak asetzea eta berriak egitea ere bada helburua. Eta nola ez, txapelduna izendatzea.

Txapelketa urtetik urtera haunditzen ari da, Belodromoa, BEC, aurten biak...

Ez pentsa hazkunde programatua denik eta helburu bat denik inongo errekorrik jartzea. Kezka ere sortzen du horrek, bertsolaritzaren benetak errealitatea hori ote den. Baina orain hau da daukaguna eta horri erantzun behar diogu.

Hazkunde programatua ez dela esan dudana arren, kontziente gera baita ere, urteetan zehar egindako lanaren ondorioa ere badela. Hala ere, elkartearen helburu nagusia bertsolaritza zaindu, sustatu eta etorkizuna bermatzea da eta ez inongo errekorrik jartzea. Azken 20 urteetan hala izan da eta horretan jarraituko



Aritz Zerain, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Koordinatzailea.

dugu aurrerantzean ere.

Bertsolaritzaren inguruko mugimendua bizirik eta aktibo mantentzen, alegia?

Bai. Hori bizirik eta aktibo badago, herrietan bertso eskolak sortuko dira, bertso saioak antolatuko dira, bertsolariak, bertsozaleak, gaijartzaileak, epaileak, antolatzaileak eta abar sortuko dira eta hori da helburua.

Gero momentu bakoitzak erakutsiko digu, Txapelketa Nagusian BECera joan behar dugun edo beste norabaitera joatea hobe dugun.

Besterik erantsi nahiko zenuke?

Hernaniko eta bertso eskolako partehartzaile guztiak animatu, bertsoan Maialen, Unai, Zelaia, Irazu, Aitor eta Beñat eta batik bat epaile lanetan ariko den Bakarne (bertsolariek denak loreak jasotzen dituztelako eta epailek beti egurra). Hernaniko zale guztiak ere Txapelketa jarraitzera animatuko nituzke, ez dira eta damutuko.

Bertso eskolakoei berriz hasteko "afari-analisiak" egiteko lekua bilatzen, aurten guarderi eta guzti beharko ditugu baino. ||

Bakarne Urreaga hernaniarra, epaile Txapelketa Nagusian



Bakarne Urreaga, Txapelketa Nagusiko epailea.

Zure ibilbidea zein da epaile lanetan?

Hernaniko bertsolari txapelketa egiten zen garaian hasi nintzen epaile zereginetan, lardaxkan. Serio aldiz, 2003ko Gipuzkoakoan hasi nintzen, kanporaketetako saioak epaituz. 2007ko Gipuzkoakoan ere aritu nintzen, besteak beste finalean.

Denbora tarte honetan hainbat sariketetan ohiko epaile naiz: Lizardi, Orixe, Txantxangorri, Euskal Herriko eskolartekoan... Lehen aldiz hartuko dut parte

Euskal Herrikoan eta ardura handia den arren gogotsu nago.

Ta aurtengo txapelketarako nola prestatu zara (edo zarete)?

Esan beharra dago Txapelketa Nagusirako gauden epaile taldean Euskal Herrikoan aurrez epaile arituak eta berriak gaudela. Baina guztiak ere herrialdekoetan eta sariketetan esperientziadunak. Oinarri horretatik abiatuta eta behin herrialde bakoitzeko ordezkari izango ginen epaileen izenak

erabakita, otsailean hasi ginen lanean.

Geroztik hileroko trebatze saioak egin ditugu batetik, eta bestetik, aurrez finkatuta zeuden epaile irizpideak eguneratu ditugu. Azken lan honetan epaileoz gain bertsolariak eta bertso munduko aditu jendea ere aritu da.

Prestaketa lan sakona egin dugu beraz eta orain txapelketa saioz saio gure lana ahalik eta txukunen betetzea besterik ez zaigu falta. ||

Mugikortasun festa

Mugikortasun astean zehar Kronikak Hernanin egindako argazkiak.





Jabetze Eskolen ikasturte hasiera ospatzeko ikuskizuna izan zen Leokan. Jabetze Eskolek berehala hasiko dute ikasturte berria, eta hasiera emateko ikuskizuna antolatu zuten Leokan, Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak. Ikuskizunean emakumeak izan ziren protagonista, Leoka urte askotan beraien topaleku, lan leku eta kontu toki izan baitzen. Ostiralekoan, besteak beste ondorengo ikuskizunetaz gozatu zuten: Ainara dantza eskolako dantzak, Dilshad sabel dantza taldearen dantzak, bideo proiektzioak eta Ania Iburguren kontzertua. ||



Akarregi sagardotegiak irabazi zuen Txantxangorriko Sagardo Lehiaketa.

Txantxangorri elkarteak Sagardo Lehiaketa egin zuten ostiralean, aurtengoarekin 26garren aldiz. Lehiaketan 15 sagardotegik hartu zuten parte, eta horietatik 7 Hernanikoak izan ziren. Afari baten bueltan mahaikideek sagardoa dastatu zuten, ondoren euren botua emateko. Aurtengo sagardo onenaren saria Akarregi sagardotegiari eman zioten, 1.151 punturekin. Bigarrena Itsasburu sagardotegia izan zen, aurrekoaren puntu berdinekin. Berdinketaren aurrean, saria 10 puntuko botu gehien jaso zituen sagardotegiari eman zioten; Akarregik 10 puntuko 19 botu jaso zituen eta Itsasburuk 8. Hirugarren saritua Herrero izan zen 1.150 punturekin, eta laugarrena Lizeaga 1.130 punturekin. ||

IRAILAK 28, astelehena:



• **Erakusketa:** Villa Ave Mariako proiektuak ikusgai. Urriaren 30a arte. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta larunbat goizetan, Biteri kultur etxean.



• **Erakusketa:** Chillida, Hernani 1951-1957. Chillida-Leku museoak antolatuta, urriaren 30era arte. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta larunbat goizetan, Biteri kultur etxean.

• **Erakusketa:** Sahara. Emakume izena du. Udaletxeko Areto Nagusian, 17:30etatik 19:30etara.

IRAILAK 29, asteartea:

• **Gazte -txokoa:** Gazte Zinema.

IRAILAK 30, asteazkena:

• **Erakusketa:** Sahara. Emakume izena du. Udaletxeko Areto Nagusian, 17:30etatik 19:30etara.

• **Gazte -txokoa:** Txapa tailerra.

URRIAK 02, ostirala:

• **Erakusketa:** Sahara. Emakume izena du. Udaletxeko Areto Nagusian, 17:30etatik 19:30etara.

URRIAK 03, larunbata:

• **Mugarri bisita:** 20garren edizioa. Hernaniko mugarriak ezagutzeko irteera, mugarri mugari.

Asun Esnal
Bitxigintza

Enkarguzko lanak, zilarra eta urreakin. joyeria artesanal

Bixien konponketak egiten ditugu.

Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943 33 04 78

LIKIDAZIOA

BUKATZEKO

dena

%50 KO DESKONTUAREKIN

AKARKI

IKASTAROAK

APAINKETARAKO TEKNIKAK

egurra, oihala, zeta, eskaiola, alabastrina, beira, harea, decoupage, pirograbatua

TEKNIKA BERRIAK

Orduetegiak:
Astelehena 15:00 - 17:00
Asteazkena: 17:00 - 19:00 eta 19:00 - 21:00
Ostirala: 9:30 - 11:30

HAURRAK: Astelehena 17:00 - 18:30
MARRAZKIA ETA MARGOGINTZA:
Asteazkena 9:30 - 12:00

APAIN EZAZU ZURE ETXEA, ZURE SORMENAZ, GUK LAGUNDUKO DIZUGU.
LANAK EGITEN DITUGU ERE, ZURETZAT, GOGOKO DUZUN ERAN.

Tel.: 943 55 72 56 Elkano, 6 - Hernani

Mugimendua jostailu

MUGIMENDU ADIERAZGARRIEN LANTEGIA HAURRENTZAT

Talde txikiak
Banakako arreta

Marieluts, 4-behea

943 33 11 83
656 72 14 92

SASOIKO

Amegar

Etxe Tresnak - Altzariak

Erabili ezazu BERRIAK txartela

Ordaintzeko erraztasunak - Finantziaketa -
- 12 hilabetetan interesik gabe -

Txirrita kalea, 13-15 **Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03**

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Goizean goiz eta egunaren azken orduetan lainoz estalia izango da zerua, eta zaparradaren bat ere bota dezake. Tenperatura berdin.
BIHAR Eguraldi egonkorra izango da. Lainoak eta ostareak tartekatuko dira. Iparraldeko haizea ibiliko da, baina tenperatura berdin mantenduko da. (euskalmet)



Tibeteko monejeek Jakinduriaren Mandalak egin zituzten hiru egunetan zehar Chillida-Leku museoan. Mandalak koloretako hondarrek egiten diren marrazkiak dira, eta museoan egindakoa bukatzeko 33 ordu behar izan zituzten. Egileak izan ziren Thupten Choephel eta Lungirik Chonjor. Mandala egin ondoren, Donostiako Haizearen Orrazira joan ziren eta bertan bota zuten, herrialdeen arteko elkartzasuna ospatzeko. ||



Ereñotzuko auzotarrak Aranora igo ziren, azken lau urtetako ohiturari hutsik egin gabe. Bizikletan 20 lagun abiatu ziren, bakoitza bere erritmoan. Igoeran tropela hiru zatitan banatua geratu zen, aurrean dana eman zutenak, erdian tropel nagusia, eta atzean paseo giroan joan zirenak, bide bazterreko bizilagunak agurtzen. Aranora iristen aurrean Mikel Otegi izan zen, 37,50eko denborarekin; bigarrena Unai Erroizena izan zen eta hirugarrena Angel Pikabea. Eguerdian, bai bizikletaz igo zirenek, eta baita bertara urbidu zirenek elkarrekin bazkaldu zuten Kontsejuan. ||

❖ ASTIGARRAGA

Astigarragako Udalak herritarrak AEKn ikastera animatu ditu

Astigarragako Udalak euskara ikusi eta hobetu nahi duten herritarrak animatu ditu AEK euskaltegian apuntatzera. Aurreko urteetan egin duen moduan, Astigarragako udalak diruz lagunduko ditu euskaltegian arituko diren herritarrak. Horrez gain, matrikularen %75a jasoko dute bueltan, ikasturte amaieran, ondorengo perfila betetzen duten ikasleek: 12 urte arteko umeak dituzten gurasoek, langabezian daudenek, merkatariek direnek eta ikasleak direnek. Gainerako herritarrei %40a itzuliko diete. Informazio gehiago jaso nahi duenak, edo euskaltegian izena eman nahi duenak kultur etxeko 2garren solairura azaldu behar du, 943557354-607610687 telefonoetara deitu dezake, edo astigarraga@ae.org helbidera idatzi dezake. ||

Kizkia taldearen sagardo lehiaketa asteazkenean

Aurten ere Astigarragako Kizkia taldeak sagardo lehiaketa antolatuko du Gure Izarra elkartearen. Saillapenak dagoeneko aurrera dijoaz, eta finala hilaren 30ean izango da, asteazkenean, bazkari eder baten bueltan. Lehiaketan 19 sagardotegik hartu dute parte, tartean Astigarragako seik eta Hernaniko lauk. ||



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Pilates-eko klaseak** ematen dira Lujanbio gimnasioan (Marijose Corbella). Deitu: 609 722 409. Apartamentua salgai Lasarten (egoera onean). Zentruan, toki lasaia eta berri berria. Bikoteentzako egokia. Deitu: 657 708 866.
- Pisua salgai Karabelen**. 60m2, sukalde handia, 2 logela, egongela eta komuna. Berri berria. Deitu: 626 479 038
- GIMNASTIKA KONTZIENTEA**: Mugimenduak eragiten duen sormena eta ongizatea modu erlaxatu eta arinean aurkitzeko bidean. **SASOIKO** (Marieluts 4 behea). 943 33 11 83 - 656 72 14 92
- MUGIMENDUA JOSTAILU**: Mugimendu adierazgarri lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. **SASOIKO** (Marieluts 4 behea). 943 33 11 83 - 656 721 492
- GIMNASTIKA ARMONIKOA HAURDUNENTZAT**: Mugimenduen eta arnasketaren bidez haurdunaldian laguntzeko eta erditzea prestatzeko. **SASOIKO** (Marieluts 4 behea). 943 33 11 83 - 656 721 492
- ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna**. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua**. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea**. Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa**. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2)**. 943 55 76 76
- Iniño Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

biokbi
optika
Antziola, 14 - Tel: 943 33 68 86

BETAURREKO OSOA
65€-tik aurrera

biokbi
optika
Antziola, 14 - Tel: 943 33 68 86

IKUSMEN ARAZOAK GOIZ DETEKTATZEA
ETA ALDIZKAKO AZTERKETAK BEHARREZKOAK DIRA

Ikasketetan huts egiten duten
3 pertsonetatik 1-ek ikusmen
arazoengatik egin dezake

Graduazioa egunean izateak
LAN eta TRAFIKO ISTRIPUAK
saihesten ditu

Promozioko monturekin bakarrik
Graduazioak +/- 4 Esf. - 2 Zil.
Promozioa irailaren 15etik urriaren 31era.

R.P.S. 174/06
Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista, 12.244 zkia.

ORDUTEGI BERRIA
ASTELEHENETIK ASTEAZKENERA
09:00 - 13:30
OSTEGUNA ETA OSTIRALA
09:00 - 13:30 eta 17:00 - 20:00
LARUNBATA
09:00 - 14:00 eta 18:30 - 21:00
IGANDEA
10:30 - 14:30

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)
AUKERA ZABALA!!...ETA ENKARGUZ:

Ukondo errea Patatak + Sagardoa 8,50€	Oilasko errea 5,75€	Arkume errea Patatak 8,50€
--	-------------------------------	---

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32